

## INFORMAZIO OHARRA

| ELEXALDE ETORBIDEKO 2-10 BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZA-BLOKEAN KOKATUTAKO 99 APARKALEKU-PLAZAREN AZALERA-ESKUBIDEA ESKUALDATZEA | |
|---|---|
| **GALDERA** | **ERANTZUNA** |
| **NORK ESKURA DEZAKE?** | Leioako Udalerrian erroldatutako eta adinez nagusi den pertsona fisikoa eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituena. Berdinketarik sortzen bada III. eranskinean zedarritutako gunean erroldatutako interesdunek izango dute lehentasuna. |
| **AZALERA-ESKUBIDEAREN IRAUPENA** | 75 urte jabetza-erregistroan lehen inskripzioa egin zenetik, hau da 2013ko urtarrilaren 8tik. |
| **ZENBAT BALIO DU?** | Eskaintza egiteko gutxieneko prezioa **586,77€/$m^2$ erabilgarriko.** Parte hartzeko 50€ko behin-behineko bermea jarri beharko da. Diru hau esleipenaren ostean itzuliko da elementuaren azalera-eskubidea erosteari uko egiten dionari izan ezik. |
| **EMAN BEHARREKO DOKUMENTAZIOA** | Gutun-azal bat honako esaldi honekin "Leioako Elexalde etorbideko 2-10ean kokatutako aparkalekuen azalera-eskubidearen eskualdatzearen kontratuan parte hartzeko proposamena" eta barruan bi gutun-azal izango dituena:<br>1. gutun-azala: "Eskaera" V. Eranskinaren araberakoa.<br>• NAaren kopia edo ordezka lezakeen dokumentazioa.<br>• Erantzukizunpeko adierazpena. IV. eranskina.<br>• Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa eta telefono zenbakia. V. eranskina.<br>• Banku-kontuko zenbakia, V. eranskina, behin-behineko berme gisa jarritako 50€ itzultzeko.<br>• Behin-behineko bermea jartzearen ziurtagiria.<br>2. gutun-azala: "Proposamen ekonomikoa" VI. eranskinaren araberakoa<br>• Gutxieneko prezioa 586,77 € $m^2$ erabilgarriko, eta honek, partzela bakoitzaren azalerara aplikatuta, I. eranskinean agertzen diren lizitaziorako hasierako prezioak ematen ditu |



<table>
<tr><td></td><td>Eskainitako kopuruek (handienetik txikienera) finkatuko dute aparkaleku plazak aukeratzeko hurrenkera.<br><br>Gutun-azalak ondo itxita aurkeztuko dira. Gainera, edukia orri guztiek zenbaki korrelatiboa eta guztirako zenbakia dutela aurkeztuko da.</td></tr>
<tr><td>NON AURKEZTU BEHAR DA DOKUMENTAZIOA?</td><td>Eskabideak Herritarrarentzako Arreta Zerbitzuetan aurkeztuko dira:<br><br>• Udaletxeko HAZ: Elexalde auzoa, 1 94.400.80.00<br>• Gaztelubideko HAZ (behin-behinekoa): Maiatzaren Bata kalea, 3 94.464.67.22<br>Halaber 39/2015 Legean aurreikusten den edozein erregistrotan aurkez daitezke. Horrela egingo balitz Udaletxeari erosketak@leioa.net e-posta bidez jakinarazi beharko litzaioke.</td></tr>
<tr><td>PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA</td><td>HOGEITA HAMAR (30) EGUN NATURAL Leioako Udalaren iragarkia Bizkaiko Agerkari Ofizialean argitaratzen denetik</td></tr>
<tr><td>ESLEITZEKO PROZEDURA</td><td>1. Kontratazio mahaiak <u>1. Gutun-azalak</u> begiratuko ditu emandako dokumentazioa aztertzeko. Osatugabea balitz edo zalantzarik sortuko balu, konpontzea eskatuko litzaioke eskatzaileari 3 egun balioduneko epean.<br>2. <u>2. gutun-azala</u> jendaurrean irekiko da. Horretarako eskaintzaileei jakinaraziko zaie emandako e-postaren bitartez.<br>3. Lehentasun-hurrenkera proposamen ekonomikoaren arabera ezarriko da partzela bakoitza aukeratzeko honako irizpide honetan oinarrituta:<br><br>
<table>
<tr><td>PROPOSAMEN EKONOMIKOA</td><td>100%</td></tr>
<tr><td>…………..……..€/M$^2$ERABILGARRIKO</td><td></td></tr>
<tr><td colspan="2">Mahaiak 100 puntu emango dio ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari, gainontzeko eskaintzak alderantziz proportzionala den hiruko erregelaren bitartez puntuatuko dira.</td></tr>
</table>
</td></tr>
</table>



| | |
|---|---|
| | 4. Berdinketarik sortzen bada eragin-eremuan erroldatutakoek izango dute lehentasuna eta berdinketak iraungo balu jendaurrean egindako zozketaren bitartez ezarriko da lehentasun-hurrenkera..<br>5. Behin partzelak aukeratzeko lehentasun-hurrenkera ezarrita, eskaintzaileei hitzordua emango zaie tokia, eguna eta ordua jarriz.<br>6. Lehen aukeratzaileak (ordainketak egunean izatearen ziurtagiria eraman beharko du) edozein plaza aukeratzeko eskubidea izango du mugikortasun ezintasuna duten egoiliarrentzat gordetakoak izan ezik eta aukeratutako plazaren zenbakia duen agiri bat emango zaio.<br>7. Hurrengo aukeratzaileekin prozedura berdina erabiliko da.<br>8. Lehenengo txanda amaitu ostean soberako partzelarik geratuko balitz proposamen ekonomikoa bigarren partzela bat erosteko interesa adierazi dutenei deituko litzaieke (gehienez 2 partzela erosi ahal dira).<br>9. Behin esleipena eginda, parte-hartzaileei idatziz jakinaraziko zaie.<br>10. Ordainketa jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik 15 egun baliodunеko epean egingo da.<br>11. Ordainketa banku transferentzia bidez egingo da kontu honetan: ES81-2095-0048-2020-4801-8741<br>12. Behin ordainketa eginda salerosketa kontratua sinatuko da eta eskritura publikoan jasoko da eta gero Erregistroan inskribatuko da, esleipendunak dagozkion zergak ordaindu beharko dituelarik. |
| OBSERVACIONES | • **Ezin izango da proposamen bat baino gehiago aurkeztu**<br>• **Herritarrarentzako Arreta Zerbitzuetan izena eman beharko da bisita egunetarako.**<br>    o **Asteartea, urriak 24, 18:00etan**<br>    o **Asteartea, urriak 31, 14:00etan**<br>• **Aparkaleku partzelak ez daude inolako babes publikoko araubideri atxikita.**<br>• |
| | • |

**Esta NOTA es meramente informativa.**